

## ***OLERKIAK***

### **HURA**

Hark ez zuen nire azala musukatzen,  
ezta nire ezpainak ere.  
Ez dakit nola egiten zuen,  
baina barnean sartzen zitzaidan  
lotsarik gabe.

Dena ongi antolatuta zuen  
ni berarekin erabat eta betiko maitemintzeko  
atzera bueltarik gabe.

**NI ZERUA ETA HURA LURRA,  
ETA GURE MAITASUNA  
HODEIERTZA**

Maitasunak sarri  
ez du hankarik ez bururik.  
Eta min ematen du bihotzean.

Benetan diotsuet:  
itsuen basamortuan  
eta mutuen koliseoan  
bizituko banintz bezala  
arnasten dut poesia.

Herri mina duen eta  
betirako erbesteratua izan den  
arima hauskorra naiz ni:  
beti minbera, sentibera, maitebera.



**ENE GORPUTZAREN BAKARDADEA  
ZAU RIRA LAKETUA**

Ez da horren desberdina izanen  
zu maitatzea eta zu ahaztea.

Badakit laster ez dela deus ere gertatuko,  
eta itsaso honek  
olatu berak ekarriko dituela;  
esaldi bakoitza osatzen duten hitz madarikatuak ere  
itsaso gazi honek ekarriko ditu.

Eta laster ez dut deus ere kontatzeko izanen,  
ez bada behartutako bakardade honi buruz solasteko.  
Ez bada ezusteko zulo honi buruz hitz egiteko,  
hain hotz eta urrun den zure abandonu honi buruz  
mintzatzeko  
arima giltzapetzen didan min honi buruz,  
ez bada jada inor kabitzen ez den huts konponezin honi  
buruz hitz egiteko.

Poesia zurekin eraman zenuen mendebalderako tren  
hartu zenuelarik  
eta ni negarrez hustu nintzen poesiaz husten nintzela-  
rik...  
zu itzuli arte hegoaldeetik iparraldera.

**ENE GORPUTZAREN BAKARDADEA  
ZURE GORPUTZETIK LEKUTUA**

*Ainara Maia Urroz*